



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2016ko abenduaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

390/2016 Dekretua

413/2016 Dekretua

426/2016 Dekretua

467/2016 Dekretua

481/2016 Dekretua

508/2016 Dekretua

510/2016 Dekretua

409/2016 Dekretua

415/2016 Dekretua

432/2016 Dekretua

480/2016 Dekretua

493/2016 Dekretua

509/2016 Dekretua

520/2016 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

522/2016 Dekretua
528/2016 Dekretua
534/2016 Dekretua
537/2016 Dekretua
541/2016 Dekretua
553/2016 Dekretua
561/2016 Dekretua
567/2016 Dekretua
572/2016 Dekretua
578/2016 Dekretua

524/2016 Dekretua
529/2016 Dekretua
536/2016 Dekretua
539/2016 Dekretua
552/2016 Dekretua
559/2016 Dekretua
563/2016 Dekretua
571/2016 Dekretua
577/2016 Dekretua
589/2016 Dekretua

3.- 3/2016 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 3 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
120.153.40.01	Lanetako Ofiziala. Oinarrizko Soldata	10.232,74	284,40	10.517,14
120.332.10.01	Liburutegiko Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	4.033,91	46,25	4.080,16
120.920.10.01	Idazkari-Kontu Hartzailea. Oinarrizko Soldata	12.671,54	410,76	13.082,30
120.920.11.01	Administrari Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	10.498,04	286,08	10.784,12
120.920.12.01	Garbitzailea. Oinarrizko Soldata	4.876,20	71,16	4.947,36
121.153.40.01	Lanetako Ofiziala. Soldata Osagarria	24.999,80	506,28	25.506,08



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

121.332.10.01	Liburutegiko Laguntzailea. Soldata Osagarria	8.257,81	29,83	8.287,64
121.920.10.01	Idazkari-Kontu Hartzailea. Soldata Osagarria	27.280,82	599,35	27.880,17
121.920.11.01	Administrari Laguntzailea. Soldata Osagarria	23.756,46	609,18	24.365,64
121.920.12.01	Garbitzailea. Soldata Osagarria	9.903,74	102,92	10.006,66
130.230.00.01	Gizarte Langilea	13.066,20	2.036,13	15.102,33
160.332.10.01	G.S. Liburutegiko Laguntzailea	3.154,44	74,80	3.229,24
160.920.11.01	G.S. Administrari Laguntzailea	8.700,60	698,53	9.399,13
213.153.40.01	Ibilgailuaren Mantenimendua	2.000,00	103,58	2.103,58
220.920.00.03	Informatikako Materiala	1.000,00	71,08	1.071,08
222.920.50.01	Izferi Ekarpena	10.277,80	569,98	10.847,78
226.920.00.04	Aholkularitza Juridikoa	8.000,00	1.839,24	9.839,24
226.920.00.99	Bestelako Gastu Orokorrak	5.000,00	758,11	5.815,63
430.230.00.01	Gizarte Zerbitzuak	2.000,00	93,86	2.093,86
430.231.10.01	G.Z. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	10.100,00	1.356,43	11.456,43
430.320.00.01	Hezkuntza Batzordea	1.500,00	604,12	2.778,24
GUZTIRA		201.310,10	11.152,07	212.462,17

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	37.846,33	11.152,07	48.998,40
GUZTIRA		37.846,33	11.152,07	48.998,40

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

3.- 2016ko abenduaren 14an egindako Kontu hartzailearen komunikazio onestea, non azaltzen diren:

Kreditu aldaketaren espediente kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2016rako ezarritako helbururak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomikoa finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edo gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Kontuan izanda 2016rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izandirela,



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko eta 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantzazioa du:

- Diruzaintza gerakina 11.152,07 €

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

4.- 2017 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2017 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARRERAK

Kapitulua	Izena	€ Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	113.400,00
2	Zeharkako Zergak	4.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	72.015,22
4	Transferentzi Arruntak	450.584,78
5	Ondare Sarrerak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
SARRERAK GUZTIRA		640.000,00

GASTUAK

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	229.472,42
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	292.256,44
3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzi Arruntak	96.271,14
6	Inbertsioak	22.000,00



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

9	Pasibo Finantzarioak	0,00
IRTEERAK GUZTIRA		640.000,00

2017 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA
KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila				
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	A1/A2	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa				
* Mota: Erdiko Teknikariak				
GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	A2	H	36%
Administratiboa/				
* Mota: Laguntzailea				
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	40%
Zerbitzu Bereziak				
* Mota: Ofizioetako Pertsonala				
ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	C2	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	

2017rako LANPOSTUEN ZERRENDA
KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Esk	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Mail	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	E
IDAZKARI-KONTU HARTZ	Adm Oro	F.H. N	P Zien. - Zuzen Dipl	C	% 70	A1 A2	23	18.480,42	4	91-02-06	
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL.	Adm Oro	Lag unt	Eskola Grad edo LH1	C	%100	C2	14	18.906,72	3	91-02-06	
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	Tekn ik	Diplomatu a	C	% 38,01	A2	17		3	91-12-01	
LANETAKO	Adm	Zer	Eskola	C	%	C2	16	19.020,68	2	91-02-06	



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

OFIZIALA	Ber	Ber	Grad edo LH1		100						
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAIL	Adm Oro	Lag unt	Eskola Grad edo LH1	C	% 41,84	C2	13	6.058,08	3	96-04-01	
GARBITZAILEA	Adm Ber	Zer Ber	Eskola Graduatua	C	% 55,78	E	8	8.163,26	2	92-05-01	

BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Esk ala	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best. Otros
GIZARTE LANGILEA	Adm Ber	TEK N	Diplomad	C	% 38,01	A2	13	Ez/No	3	91-12-01	Mugagab	

2017 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2017ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aho batez onartuak izan dira.

5.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA

27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazioa eta jasangarritasunari buruzkoak, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren hainbat artikulua aldatzen ditu, hogeigarren xedapen gehigarri bat sartuz:

- 1.- Kontsortzio bakoitzaren estatutuek zehaztuko dute ze Herri administrazioa atxikituta egongo den, halaber bere erregimen organikoa, funtzionala eta finantziarioa hurrengo ataletan aurreikusitakoaren arabera.
- 2.- Ondorengo lehentasun irizpideen arabera, ekitaldi ekonomikoaren lehen eguneko egoerari dagokiolarik, kontsortzioa atxikituta geratuko da, aurrekontu ekitaldi bakoitzean eta epe horretarako, honako herri Administrazioari:
 - a) Gobernu batzordean botoen gehiengoa duena.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kasuan administrazio hori Gipuzkoako Foru Aldundia da.

Hortaz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren hirugarren artikulua honela idatzita geratuko litzateke:

3. artikulua.- Nortasuna eta gaitasun juridikoa

- 1.- Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.
- 2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2016ko urriaren 27an ospatutakoak, aipatutako aldaketa hasiera batean onartu zuen.

Bestalde, behin-betirako onartu dadin, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 23. artikulua arabera, beharrezkoa da udal kontsortziokideek ere, osoko bilkuraren erabakiaren bitartez, aipatutako aldaketa onartzea.

Guzti hori kontutan, izanik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen 3. artikulua aldaketa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Idazkaritzak, 2016ko abenduaren 13an, txosten bat egin zuen, alderdi hauek aztertzeko: Administrazio Elektronikoaren zenbait alderdi arautzeko udal-ordenantza onartzeko erabili beharreko prozedura eta legedi aplikagarria. Txosten hori aztertuta;

Aztertuta, orobat, udal-zerbitzuek Administrazio Elektronikoaren zenbait alderdi arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua —Alkatetzak 2016ko abenduaren 12an eskatu eta Udal honetan 2016ko abenduaren 12an jaso—;

Burututa legeak ezartzen dituen izapideak, eta kontuan hartuta Udalbatzaren eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluei jarraiki, Udalbatzari proposatu zaio onar dezala ondoko

ERABAKIA

LEHENA. Administrazio Elektronikoaren zenbait alderdi arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea agiri honetan jasotzen den moduan:

LIZARTZAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

ZIOEN AZALPENA

Informazioaren teknologia berriak gero eta hedatuago daude bizitzako eremu guztietan. Hori horrela, beharrezkoa da administrazio elektronikoa hiritarrei hurbiltzea, kudeaketak errazago egin ditzaten, udal bulegoetara joan beharrik gabe.

XXI mendeko erronka teknologikoen mailan egon nahi duen administrazio batek komunikazio elektronikoen erabilera sustatu behar du; aurrerapen eta berrikuntza teknologikoak aplikatu behar ditu izapide eta prozeduretan, hiritarrei eskaintzen dien zerbitzuetan ahalik eraginkortasunik handiena eskaintzeko.

Udalaren ardura da konfiantza eta segurtasuna sortzea izapide elektronikoen erabileran, aurrerapen teknologikoak haien zerbitzura jarritz. Azken batean, administrazioaren ardura da aurrez aurreko kudeaketaren eta kudeaketa elektronikoen arteko bidea murriztea, eta gure ardura da hiritarren eta administrazioaren artean dagoen hesia murriztea.

Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezartzen du 2009ko abenduaren 31tik aurrera toki-administrazioek hiritarrei aukera eman behar dietela legeak berak aitortutako eskubide hauek bitarteko elektronikoz erabiltzeko:

- a. Administrazioarekin harremanetan jartzeko bidea aukeratzea.
- b. Administrazioak dituen datuak eta dokumentuak ez ematea.
- c. Berdintasuna zerbitzuak bitarteko elektronikoz eskuratzekoan.
- d. Interesdunak diren prozedurak zer izapidetan dauden ezagutzea.
- e. Dokumentuen kopia elektronikoak lortzea.
- f. Espedientea osatzen duten dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- g. Identifikazio elektronikorako behar diren bitartekoak lortzea, eta pertsona fisikoek nortasun-agiriaren sinadura elektronikoa erabili ahal izatea, edozein administrazioekin edozer izapide elektronikoko egiteko.
- h. Sinadura elektronikoko beste sistema batzuk erabiltzea.
- i. Segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.
- j. Bitarteko elektronikoen bidez emandako zerbitzu publikoen kalitatea.
- k. Administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzea, betiere estandar irekiak erabiltzen diren kasuetan.

1. Artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua da Lizartzako Udaleko administrazio elektronikoen zenbait alderdi arautzea, zehazki, honako hauek:

- a. Lizartzako Udalaren egoitza elektronikoa sortzea, eta haren funtzionamendua arautzea.
- b. Identifikazio elektronikoko sistemak definitzea.
- c. Lizartzako Udalaren erregistro elektronikoa sortzea, eta haren funtzionamendua arautzea.
- d. Jakinarazpen elektronikoen funtzionamendua arautzea.
- e. Dokumentu elektronikoen zenbait alderdi definitzea.
- f. Espediente elektronikoen zenbait alderdi definitzea.

2. Artikulua. Lege-esparrua.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearena.
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoa.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datuen babesari buruzkoa.

EGOITZA ELEKTRONIKOA

3. Artikulua. Egoitza elektronikoa.

1. Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/07 Legearen 10. artikuluan jasotakoari jarraikiz, <http://www.lizartza.eus> web-gunea izango da Lizartzako Udalaren Egoitza Elektronikoa.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2. Lizartzako Udalaren egoitza elektronikoaren zati izango dira, halaber, Udalaren jabetzako datuak argitaratzen eta kudeatzen dituzten web-guneak, betiere 2003ko martxoaren 13an Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearekin (IZFE S.A.) sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren edo horren ondorengoan, ordezkoen edo osagarrien babesean.
3. Bitarteko elektronikoaren bidez Udala edo herritarrak baimendu behar direnean jarduera, prozedura eta zerbitzuetarako, hori egoitza elektronikoaren bidez egingo da.
4. Egoitza elektronikoa kudeatzeko arduraduna Lizartzako Udaleko Idazkaritza zerbitzua da.

4. Artikulua. Ediktuen eta iragarkien udal taula elektronikoa.

1. Legezko edo erregelamenduzko xedapenengatik ediktuen udal taulan argitaratu beharreko ekintzak eta jakinarazpenak argitaratzerakoan, ediktuen taula elektronikoa argitaratuta osatu ahal izango dira.
2. Ediktuen taula elektronikoa Lizartzako Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko da eta interneterako konexioa duen edozein terminaletik kontsultatu ahal izango da.
3. Ediktuen taula elektronikora sartzeko ez da nortasuna egiaztatze inolako mekanismo berezirik behar izango.
4. Ediktuen taula elektronikoa edukia egiazkoa, osoa eta erabilgarria dela bermatzen duten sistemak eta mekanismoak edukiko ditu, herri administrazioetako araubide juridikoa eta administrazio prozedura erkidea araupetzen duten legeek aurreikusitako baldintzei jarraiki. Bereziki, dagozkion epeak zenbartzeko ondorioetarako, ediktuak argitaratu diren data eta ordua adieraztea bermatzen duten mekanismoa ezarriko da.
5. Ediktuen taula elektronikoa erabilgarri egongo da urteko egun guztietan, hogeita laur orduz, egoitza elektronikoaren bidez. Arrazoi teknikoak direla-eta, aurreikusten bada ediktuen taula elektronikoa ezingo dela erabilgarri egon, erabiltzaileei ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaie, eta taula kontsultatzeko erabilgarri dauden baliabideak adieraziko zaizkie.

IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA

5. Artikulua. Identifikazio elektronikoa.

1. Lizartzako Udalarekin dituzten harremanetan, pertsonak eta entitateek Lizartzako Udalak baliozkotzat hartutako sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte sistema hori onartzen duten prozeduretan eta jardueretan. Egoitza



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

elektronikoan, Lizartzako Udalak baliozkotzat hartzen dituen sinadura elektronikoko sistemen zerrenda eguneratua argitaratuko da.

2. Aldi baterako, sinadura elektronikoko sistemarik ez duten pertsoneri eta entitateei, gako eragile eta pasahitzaren bidezko ordezkotza sistema bat eman ahal izango zaie Udalarekin harremanak izateko eskubidea gauzatu ahal izateko. Egoitza elektronikoa, gako eragilea eta pasahitza eskatzeko jarraibideak eta formularioa argitaratuko dira.
3. Sinadura elektronikoa edo gako eragilea erabili arren, dokumentu edo komunikazio elektronikoa sartu egin behar dira prozedura bakoitzerako behar diren identifikazio datuak.
4. Hirugarren baten izenean dokumentuak elektronikoki aurkezteko gaitutako pertsonak edo entitateek ekintza hori gauzatzeko behar den ordezkotza izan behar dute, 39/2015 Legearen 5 artikuluekin bat.
5. Eskabide telematikoa batean interesdun bat baino gehiago daudenean, interesdun guztiek sinatu behar dute elektronikoki eskabidea, eta jarduketak berariaz adierazitakoarekin edo, bestela, lehenengo sinatzaile gisa agertzen den interesdunarekin gauzatu dira.
6. Udalak, orokorrean edo berariaz, baimendutako pertsona fisikoak edo juridikoak gaitu ahal izango ditu interesdunen izenean dokumentu elektronikoki aurkeztu ahal izateko, 11/2007 Legeko 23. artikuluan ezarrita bezala.

ERREGISTRO ELEKTRONIKOA

6. Artikulua. Erregistro elektronikoa sortzea.

1. Lizartzako Udalaren erregistro elektronikoa on line dagoen erregistro informatiko bat da, eta egoitza elektronikoa argitaratzen diren prozedura eta izapideei dagozkien eskaerak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko eta igortzeko aukera ematen du.
2. Erregistro elektronikoa ez du erregistro orokor tradizionala ordeztzen; interesdunaren esku jartzen den beste bide bat da, eta haren helburua da Lizartzako Udalarekin dituzten harremanak bizkortzea, eta eraginkorrak eta erosoak izatea (39/2015 Legearen 16.artikulua).
3. Langile publikoen eta udalaren administrazio-unitateen posta elektronikoko postontzi korporatiboek ez dute, inolaz ere, erregistro elektronikoa izatera izango.
4. Ez dute erregistro elektronikoa izatera izango, halaber, faxak jasotzeko gailuek, antolamendu juridikoan berariaz aurreikusitakoak izan ezik.
5. Erregistro elektronikoa kudeatuko duen administrazio-unitatea Lizartzako Udalaren Idazkaritza da.

7. Artikulua. Erregistro elektronikoa funtzionamendua.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

1. Erregistro elektronikoa urteko egun guztietan eta eguneko hogeita lau orduetan egongo da martxan.
2. Eskaerak, idatziak, kontsultak eta komunikazioak jasotzeko zerbitzua mantentze-lan tekniko edota operatibo justifikatuak egiteko arrazoiak daudenean soilik eten ahal izango da, ezinbestekoa den denborarako soilik. Zerbitzua etengo denean, ahalik azkarren eman behar zaie horren berri erabiltzaileei. Etenaldia ez denean aurreikusia, ahal denean, erabiltzaileak egoera horren berri ematen duen mezua ikusiko du.
3. Datuetarako sarreraren segurtasun-arrazoiengatik, izapide elektronikoak egin aurretik, erabiltzaileak identifikatu egin beharko du, ordenantza honetako 4 artikuluan zehaztutako sistemaren baten bidez.
4. Erregistro elektronikoak zerbitzu hauek emango ditu:
 - a. Erabiltzaileak emandako dokumentazioaren agiri elektronikoa entregatzea, datu hauekin: bidaltzailearen identifikazioa, data, ordua, erregistro-zenbakia eta entregatutako dokumentuen zerrenda. Baldin eta interesatuak ziurtagiria jasotzen ez badu, edo jasotzen duen mezua errore edo akats baten berri ematen duen mezu bat bada, erregistro orokorrak eskaera, idatzia edo komunikazioa jaso ez duen seinale izango da, eta, hortaz, interesatuak beste uneren batean edo beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu beharko du.
 - b. Fitxategiak zehaztutako formatuetan eransteko aukera. Interesatuak emandako dokumentuak eta irudiak Lizartzako Udalerako baliozko formatu eta estandarretara egokitu beharko dira, eta kasu bakoitzean ezarritako gehienezko tamainak zaindu beharko dituzte. Egoitza elektronikoan, formatu eta estandar horien zerrenda eguneratua eta onartuko den gehienezko tamaina argitaratuko dira.
6. Erregistro elektronikoen bidez jaso edo igorritako eskaerak, idatziak edo komunikazioak sarrera edo irteeraren denbora-ordena errespetatuz erregistratuko dira. Idazpen guztiak ordena kronologikoan jasoko dira.

8. Artikulua. Epeen zenbaketa.

1. Erregistro elektronikoa, Lizartzako Udalari nahiz interesdunei dagozkien epe-zenbaketarako, data eta ordu ofizialek gidatuko dute.
2. Egun naturaletan zehaztutako epeen zenbaketaren kasuan, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, jaiegun batean aurkeztu dena hurrengo laneguneko lehen orduan aurkeztu dela ulertuko da, arauak jaiegun batean jasotzea berariaz baimentzen duenean izan ezik. Oro har, egun baliogabeak izango dira igandeak eta jaiegun bezala adierazten direnak. Egutegia egoitza elektronikoan argitaratuko da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

9. Artikulua. Dokumentu elektronikoak aurkeztea.

1. Agiriak Lizartzako Udalaren erregistro orokor elektronikoan aurkeztea borondatezkoa izango da, lege mailako arauen batek besterik ezarri ezean; beraz, interesdunek erregistro orokor elektronikoa erabiliko dute, nahi izanez gero, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan, ezarritako bideen orde.
2. Erregistro orokor elektronikoan eskabide, idazki eta komunikazioak aurkeztu ahal izateko, oro har, beharrezkoa izango da eskatzailea identifikatzea.
3. Erregistro elektronikoan aurkeztutako komunikazio, idatzi edo eskaera baten dokumentu osagarriak aurkezteko, erregistro elektronikoa, erregistro orokor tradizionala edo lege zehaztutako bitartekoren bat erabili ahal izango da.
4. Erregistro elektronikoak egoera hauetan aurkeztutako dokumentu elektronikoak baztertu ahal izango ditu:
 - a) Erregistroaren material-eremutik kanpoko organo eta organismoentzako dokumentuak.
 - b) Kode maleziatsuren bat edo sistemaren osotasunari edo segurtasunari eragin diezaiokeen gailuren bat dutenak.
 - c) Dokumentu normalizatuei dagokienez, nahitaez bete beharreko atalak betetzen ez direnean, edo haiek izapidetzea galarazten duten inkongruentziak edo ez aipatzeak daudenean.
 - d) Dokumentua Lizartzako Udalak onartutako formaturen batean egin ez denean.
 - e) Ezarritako gehienezko tamaina gainditzen duenean dokumentuak; erregistro elektronikoan bertan adieraziko da gehienezko zer tamaina onartzen den kasu bakoitzean.
5. Aurreko atalean aurreikusitako kasuetan, igorleari horren berri emango zaio, eta adierazi zer arrazoirengatik baztertzen den, halakorik egin daitekeenean, eta hutsegite horiek konpontzeko zer bide dauden eta zer helbidetan aurkeztu daitezkeen. Interesdunak hala eskatzen duenean, aurkezteko egindako saiakeraren egiaztagiria bidaliko da, baita baztertua izateko arrazoiak berri eman ere.
6. Aurreko 4 atalean aurreikusten diren egoerak gertatu, eta erregistro elektronikoak dokumentua atzera botatzen ez badu; eskumena duen administrazio-organok akatsa konpontzeko eskatuko du, eta ohartaraziko du, eskaerari erantzun ezean, aurkezpena ez dela baliozkoa edo eraginkorra izango.
7. Idatz-zati hauetan adierazitakoa gorabehera, inoren izenean dihardutenek ordezkaritza hori frogatu beharko dute, alde aurretik edo administrazio organoek eskatuz gero, horrela xedatzen baita Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

10. Artikulua. Sarrera erregistroa izango duten agiriak.

1. Lizartzako Udalaren erregistro orokor elektronikoa sarrera-erregistroa egingo zaie eskabide, idazki eta komunikazioei, behar bezala identifikaturik badaude igorlea, eskaeraren xedea, Udaleko administrazio-organo edo administrazio-unitate hartzailea eta administrazio-prozedurari buruzko araudi aplikagarrian eskatzen diren gainerako datuak.
2. Eskabide, idazki eta komunikazioen aurkezpen elektronikoari dagokionez, sistema elektronikoak interesdunei aurkezpen hori erraztuko die, eskaeraren eredu orokorra emanez, nahitaez bete behar diren eremuak adieraziz, edo, behar denean, berariazko eskaera-ereduak emanez, denak ere nahitaez erabili beharrekoak, sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko.
3. Prozedura jakin batean eskabideak, idazkiak eta bestelako agiriak aurkezteko edota zenbait agiri ofizial ateratzeko erregistro orokor elektronikoa erabili ahal izateak ez du esan nahi jarduketa horiek oso-osorik bide elektronikoetatik izapidetu daitezkeenik.

11. Artikulua. Agiriak erregistro orokor elektronikoa aurkeztearen ondorioak.

1. Eskabide, idazki, kontsulta eta komunikazioak Lizartzako erregistro orokor elektronikoa aurkezten direnean, ondorio juridikoak zuzenbidez onartzen diren gainerako bideetatik aurkezten direnean bezalakoak izango dira.
2. Interesdunek erregistro orokor elektronikoa eskabideak eta gainerako agiriak aurkeztu izana frogatu ahal izango dute erregistroak automatikoki emango dien egiaztagiria elektronikoa bidez.
3. Erregistro orokor elektronikoa agiri bat jaso duela baieztatzeko emango duen egiaztagiria paperean inprimatu edota euskarri informatikoa gorde ahal izango da.
4. Nolanahi ere, dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztean gerta daitezkeen arriskuak igorleak hartu beharko ditu bere gain, eta administrazioa ez da inongo inguruabarren erantzule izango, ez badira haren zerbitzu publikoen funtzionamenduari egotzi dakizkiokeenak.
5. Interesdunak idazki edo eskabide bera erregistro orokor elektronikoa eta erregistro arrunt batean aurkezten badu, lehenbiziko sarrera-zenbakia duena baizik ez da izapidetuko.

12. Artikulua. Agiri ofizialen irteerak.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Beste organo batzuei edo partikularrei zuzendutako idazki, komunikazio eta bestelako dokumentu ofizialen irteerari dagokionez, Lizartzako Udalaren erregistro orokor elektronikoak:

- a. Idazkia edo komunikazioa igorri den egun eta ordu zehatzak egiaztatuko ditu.
- b. Administrazio-organoa igorlea adieraziko du.
- c. Nori edo zer administrazio-organori igortzen zaion adieraziko du.
- d. Gaiaren laburpen bat jasoko du.
- e. Egiten den irteera-idazpenari hurrenkerako zenbaki bat ezarriko dio.
- f. Igorritako idazki edo komunikazio ofizialaren kopia gordeko du automatikoki.
- g. Irteerako egiaztatgiri elektronikoa lortzeko aukera emango du.

13. Artikulua. Elebitasuna.

Udal Administrazioak ziurtatu egingo du Euskararen Erabilieraren Normalizaziorako azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean, Lizartzako Udalak onartutako Euskararen Erabilera Irizpideak eta aplikatu beharreko gainerako araudietan xedaturikoa. Bereziki, ziurtatuko da udal egoitza elektronikoen eduki guztiak Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egon daitezen, herritarrek duten baliabide elektronikoen bidez bi hizkuntza horietako edozeinetan erlazionatzeko eskubidea ziurtatuz, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

14. Artikulua. Datuen babesa.

1. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, izapideetarako jasotako datu pertsonalak «Dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroa» fitxategian sartuko dira, edo etorkizunean egin edo osa daitekeenean. Ordenantza hau onartzeko garaian, fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Agentzian identifikatzeko kodea Sarrera eta irteera erregistroa da.
2. Fitxategiaren organo arduraduna Lizartzako Udala da. Interesatuak, Erregistro Elektriko Orokorren bidez, Udalaren egoitza elektronikoan, erabiliko dituzte datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jotzeko eskubideak: Lizartzako Udala; Askatasunaren Plaza, 1; 20490 - Lizartza (Gipuzkoa).
3. Arestiko 4 artikuluan adierazitako identifikazio-sistema elektronikoak erabiltzen direnean, eta nortasuna egiaztatu ahal izateko, emandako datu pertsonalak erabiltzeko baimena ematen dio eskatzaileak Udalari.

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

15. Artikulua. Jakinarazpen elektronikoa.

1. Lizartzako Udalak jakinarazpen elektronikoko sistema bat izango du, eta beste bitarteko edo sistema batzuen bidez osatu ahal izango da.
2. Lege mailako arau batek elektronikoa ez den baliabide bat erabiltzeko agintzen duenean izan ezik, edozein herritarrek aukeratu ahal izango du, uneoro, udal Administrazioarekin baliabide elektronikoz komunikatzeko modua. Baliabide batzuen edo besteen bidez komunikatzeko aukerak ez du herritarra lotuko, honek edozein unetan aukeratu ahal izango baitu hasieran hautaturikoa ez den beste baliabide bat.
3. Eskieran jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzeko borondatea adieraziko da, eta jakinarazpen elektronikorako Lizartzako Udalak baliozkotu eta onartutako bitarteko bat adierazi.
4. Jakinarazpenak egoitzan egiteko prozedura honako hau izango da:
 - a. Jakinarazpen elektronikoa borondatez aukeratu duten herritarrek zein beraiekin harremana bide elektronikoz izatera derrigorrean ezarritakoek helbide elektroniko bat eman beharko dute egin beharreko jakinarazpenak jasotzeko.
 - b. Behin jakinarazpena prestatuta, egoitza elektronikoa jarriko da eskura. Eskura jarritakoan, jasotzaileari ohar bat bidaliko zaio posta elektronikoz berak emandako helbide elektronikora. Jakinarazpen oharrean egoitza elektronikorako lotura bat egongo da, jakinarazpenak kontsultatzeko atalera. Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko 11/2007 Legeko 28. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ohar hori bidalita jakinarazpena eskura jarri dela ulertuko da.
 - c. Egoitza elektronikoa modu nabarmenean agertu beharko da jakinarazpenak eskuratzeko daudela, eta garbi adierazita egon beharko da ere dokumentura sartuz gero horren edukia jakinarazitzat joko dela.
 - d. Jakinarazpenaren edukia ikusi aurretik, jasotzaileak egiaztagiria sinatu behako du sinadura elektronika aurreratuaren bidez. Egiaztagiria jakinarazpena egin duen administrazio organoari edo erakundeari bidaliko zaio dagokion espedienteari gehitzeko. Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko 11/2007 Legeko 28. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinarazpenaren edukira sartutzat joko da egiaztagiria sinatzen den momentuan.
 - e. Jakinarazpen operazioak jakinarazpena ikustea ahalbideratuko dio jasotzaileari, eta hala badagokio, erantsitako dokumentuak ere bai, horrekin batera doazen sinadura elektronikoak egiaztatzea, eta hori guztiori bere terminal fisikora jaistea.
5. Errolda elektronikoa izena emanda duen eta bide elektronikoz harremana izatera behartuta ez dagoen interesdunak arlo jakin bateko jakinarazpenak, une batetik



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

aurrera, bide elektronikotik ez egiteko eskatu ahal izango du, betiere, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 18. artikuluan onartutako gainerako bideak kontuan hartuz, jakinarazpenak egiteko helbideren bat adierazten badu.

6. Prozedura jakin bateko jakinarazpen elektronikoa egindakotzat joko da horretarako onartutako baliozko formen bidez egin ondoren, interesdunak edukiaren ezagutza eta ebazpenaren edo jakinarazpenaren helburu den ekintzaren helmena ezagutzea dakarten jarduerak egitean.
7. Bitarteko elektronikoak erabiltzeko lehentasunaren nahiz onarpenaren berri emateko eta jasotzeko, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira.

16. Artikulua. Agertze elektronikoaren jakinarazpena.

1. Agertze elektronikoaren jakinarazpena interesduna behar bezala identifikatuta dagokion administrazio-jardueraren edukira egoitza elektronikoaren bidez sartzean datza.
2. Jakinarazpen elektronikoak egoera hauetan egon daitezke:
 - a. Eskura: interesdunak jakinarazpena postontzian jaso du eta eskura dauka, onartu, irakurri edo atzera bota dezan.
 - b. Irakurrita: interesdunak jakinarazpena eskuratu eta zuzen irakurri du. Jakinarazpen-sistemak jakinarazpena eskuratu den eguna eta ordua egiaztatzea ahalbidetuko du. Une horretatik aurrera, jakinarazpena gauzatu dela ulertuko da, legezko ondorio guztietarako.
 - c. Baztertua: interesdunak bere postontzira sartu baina jakinarazpen hori ez irakurtzea erabakitzen du espresuki. Jakinarazpen sistemak jakinarazpena eskuratu den eguna eta ordua egiaztatzea ahalbidetuko du. Une horretatik aurrera, jakinarazpena baztertu dela ulertuko da, legezko ondorio guztietarako.
 - d. Automatikoki baztertua: Administrazio-jakinarazpenen baliozkotasunaren legeak ezartzen duen epea igaro eta interesatuak ez du irakurri edo atzera bota jakinarazpena. Kasu horretan, jakinarazpena baztertu egin dela ulertuko da legezko ondorio guztietarako.

DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK

17. Artikulua. Dokumentu elektronikoak.

1. Dokumentu elektronikoek baldintza hauek bete beharko dituzte baliozkoak izateko:
 - a. Edozein motatako informazioa izatea.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- b. Informazioa artxibatzea, euskarri elektroniko batean; formatu zehatz eta ezagun bateko euskarrian, hain zuzen.
 - c. Bereiztea ahalbidetzen duten identifikazio datuak edukitzea, nahiz eta maila handiagoko espediente edo dokumentu elektroniko batean sartu.
2. Administrazioaren dokumentu elektronikoak, baldintza horiek betetzeaz gainera, elektronikoki igorri eta sinatu behar dira, 11/2007 Legeko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako sinadura sistemen bidez. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10.artikuluari aurreikusitako baliozkotasun baldintzak bete behar dituzte.
 3. Administrazioaren dokumentu elektroniko baten edo interesatuak igorritako dokumentu baten kopia elektronikoa egin eta kopia hori benetako kopiatzat hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:
 - a. Lizartzako Udalak jatorrizko dokumentu elektronikoa edukitzea.
 - b. Kopia hori egiteko berariaz gaitutako funtzionario batek ematea, edo horretarako ezarritako sistemek, modu automatizatuan. Errezilgo Udalak kopia elektronikoak egiteko gaitutako funtzionarioen erregistro eguneratua izango du.
 - c. Sinadura elektronikoaren informazioak eta, egonez gero, denbora-zigiluak jatorrikoarekin bat datorrela egiaztatzeko aukera ematea.

18. Artikulua. Dokumentu ez elektronikoetatik lortutako dokumentu elektronikoak.

1. Lizartzako Udalak paperean edo digitalizatu daitekeen beste euskarri batzuetan dauden dokumentuen kopia elektronikoak egin ditzake.
2. Lizartzako Udalak igorritako dokumentuen eta interesatuek emandako dokumentu pribatuen kopia elektronikoak egin daitezke.
3. "Irudi elektroniko" izendaturiko dokumentuan edo irudi fidela sortzea ahalbidetzen duen beste edozein euskarritan dagoen dokumentu bat digitalizatzearen emaitzari. "Digitalizazio" deritzo papereko edo euskarri ez elektroniko bateko dokumentu bat fitxategi elektroniko bihurtzen duen prozesu teknologikoari, dokumentuaren irudi kodetua, fidela eta zuzena ematen duenari.
4. Irudi elektronikoak benetako kopia elektronikoak izango dira, Lizartzako Udalak baldintza hauek betetzen baditu:
 - a. Kopiatutako dokumentua jatorrizkoa edo benetako kopia izatea.
 - b. Kopia elektronikoak baliozko sinadura elektronikoa izatea.
 - c. Kopia hori idazkariak edo berariaz gaitutako funtzionario batek egitea, edo horretarako ezarritako sistemek, modu automatizatuan. Lizartzako Udalak egunean



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

izan beharko du dokumentu ez elektronikoetatik abiatuta kopia elektronikoak egiteko gaitutako funtzionarioen zerrenda.

19. Artikulua. Interesdunek igorritako dokumentu elektronikoak.

1. Hiritarrek dokumentu elektronikoak aurkeztu ahal izango dituzte interesdun diren espedientetan.
2. Paperezko euskarriko dokumentuen irudi elektronikoen fideltasuna interesdunen sinadura elektronikoaren bidez bermatuko da, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 35.2 artikuluari jarraikiz. Kasu horietan, udalak jatorrizko dokumentuarekin erkatzea eskatu ahal izango du.
3. Interesatuak emandako dokumentuak eta irudiak Lizartzako Udalerako baliozko formatu eta estandarretara egokitu beharko dira. Egoitza elektronikoan, formatu eta estandar horien zerrenda eguneratua argitaratuko da.

20. Artikulua. Interesdunek kopia elektronikoak lortzea.

Hiritarrek eskubidea dute interesdun diren prozeduren parte diren dokumentu elektronikoen kopia elektronikoak lortzeko, dagokion prozedura arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Kopia interesatuaren kontura lortuko da, eta egiaztagirien eta dokumentuen laburpen bat egin daiteke edo interesatuari eragiten ez dioten datuen konfidentzialtasuna mantentzea ahalbidetzen duten beste metodo elektroniko batzuk erabili.

ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA

21. Artikulua. Espediente elektronikoa.

1. Espediente elektronikoak prozedura bakoitzean legez aurreikusitako administrazio izapideei eta horiek Lizartzako Udalean duten aplikazio espezifikoari jarraikiz diseinatuko dira.
2. Espediente elektroniko bakoitzak kode bat izango du, identifikatu ahal izateko. Administrazio arteko trukea errazten duten sistemak erabiliko dira, ahal den neurrian.
3. Espediente elektronikoak dokumentu elektronikoz osatuta egongo dira; beste espediente elektroniko batzuk ere eduki ditzakete, prozedurak hala eskatzen badu. Baldin eta, salbuespenez, espedientera sartu beharreko dokumentu jakin batzuen izaera edo luzera dela eta, dokumentu horiek espedientean sartzeari zaila edo



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

ezinezkoa gertatzen bada, espedientearen aurkibidean sartu beharko dira, formatu ez-elektronikoan aurkeztearen kaltetan gabe.

4. Espediente elektronikoan sartzen diren dokumentuak iraupen luzeko eta erabiltzaile guztiek doan erabil ditzaketen tresnen bidez eskuratzeko moduko formatuetara egokitzen saiatu beharko da.

FAKTURA ELEKTRONIKOA ETA ORDAINKETA ELEKTRONIKOA

22. Artikulua. Faktura elektronikoa.

1. Udal administrazioak eta bere erakunde publikoek ordaintzeko sistema elektronikoak ezarriko dituzte herritarrek zergak, santzioak, isunak, errekaruak eta zor dizkieten gainerako zenbatekoak ordaindu ahal izateko, beharreko kitapenaren ondoren beharrezko kasuetan.
2. Aurreko puntuan xedaturikoa betetzeko, beste Herri Administrazio batzuek gaitutako ordainketa elektronikorako pasabideak erabili ahal izango ditu udal administrazioak, finantza erakunde zehatz batzuekin datuak modu seguru eta konfidentzian on-line trukatu ahal izateko, eta horrekin on-line ordainketa ezarririk tramitazio telematiko baten edozein puntutan.
3. Ezartzen diren ordainketa elektronikorako sistemek egindako ordainketaren agiria emango dute.
4. Ordainketa elektronikoki ezin egin ahal izateak ez du inolaz ere aldatzen bete behar hori betetzea ezarritako epeetan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan Lizartzako Udalean eskuragarri dauden edo denbora-epe labur batean eskuragarri egongo diren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Ordenantza hau indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta lege bereko 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

Bigarrena.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Lizartzako Udalaren administrazio elektronikoa ordenantza honek arautuko du, eta, ordenantzan aurreikusten ez diren kasuetan, 11/2007 Legea, 39/2015 Legea eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak aplikatuko dira.

Hirugarrena.

Ordenantza hau Lizartzako Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da: www.lizartza.eus

BIGARRENA. Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udalbatzak aztertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udalbatzak berriaz erabakia emateko beharrik gabe.

HIRUGARRENA. Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.

7.- JMP PEÑAGARICANO MODELOS PARA FUNDICIÓN S.L. LURRAREN OKUPAZIOA

IKUSIRIK, JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLko Administrazioaile bakarra den Maite Peñagaricano Ahedok, 2015ko abenduaren 28an Lizartzako Udalan aurkeztutako eskaera eta 2016ko uztailaren 28ko txostena, non gas GLP gordailu bat jartzeko jabari publikoa okupatzea eskatu den.

KONTUTAN HARTUZ, egindako txostenaren arabera, Lan arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 legea eta berau garatzen duen 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lanpostuetako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak betetzeko eskatutako instalazioa ezinbestekoa da.

Zehazkiago, 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lanpostuetako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, enpresaren instalazio barne aldearen tenperatura 14º eta 25 ° bitartekoa izan behar duela adierazten du.

JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLren txostenean, industria lokal hauentzako egokiak diren aukera ezberdinak aztertu dira eta egokiena gas GLPko



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

tutuena da. Sistema honek gas gordailua baten instalazioa eskatzen du baina 60250:2008 UNE arauak bere 5.1.4 atalean, mota honetako instalazioak eraikinen barne aldean egitea debekatzen du.

KONTUTAN HARTUZ, GLP gasaren gordailua pabiloiaren albo batean egingo litzateke eta jabari publikoa okupatuko luke, zehazki Lizartzako Irzunbiko industria poligonoan kokatutako 2,250 mko zabalera eta 5,075 mko luzera duen aparkaleku bat lirateke.

KONTUTAN HARTUZ, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, non 93. artikuluan, salbuespen eta justifikatutako egoeretan zuzeneko kontzesio esleipena ahalbidetzen den.

KONTUTAN HARTUZ, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, non 86.3 eta 93. Artikuluetan jabari publikoko ondasunen erabilera pribatua arautzen den eta obra eta instalazio higiezinaren okupazioa kontzesio administratibo bidez egin behar den.

ONDORIOZTATUZ, udal erakundearen eskuduntzen inguruan Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua dioena.

ERABAKI DA

Lehena: GLP gasaren gordailua egiteko, Irzunbiko industria gunean dagoen jabari publikoko lur saileko aparkaleku bat okupatzeko, JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLen egindako eskaera onartzea.

Gas gordailuaren instalazio lanak eta kostua JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLen kontura izango dira.

Bigarrena: Kontzesio administratiboa formalizatzeko, Lizartzako Udalak eta JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLen ordezkari legalak kontratua sinatu beharko dute. Eta bertan, ondoko puntuak jasoko dira:

- Jabari publikoko kontzesioa 10 urteko iraupena izango du eta aldean borondatea egonik beste 5 urtez luzatu ahal izango da.
- Ordaindu beharreko kanona $4,32 \text{ m}^2 \times 5,5 \text{ €} : 23,76 \text{ hilean} \times 12 \text{ hilabete} = 285,12 \text{ €}$ urteko izango da.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Okupatutako lursaila Gas gordailuaren erabilerarako izango da, beste erabilera ezberdinik ez da onartua izango.
- Legeak aurre ikusten dituen kontratua eteteko arrazoiak jasoko ditu.
- Gas gordailua eta berau babesten duen instalazioaren mantenua JMP Peñagaricano Modelos Para Fundación SLri

Hirugarrena: Ebazpen hau Maite Peñagaricano Ahedo andereari jakinaraztea eta aditzera ematea ebazpen honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko ebazpena eman duen organoaren aurrean, ebazpena argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

8.- LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSALDEA GARATZEN S.A.ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2016ko abenduaren 20an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta Tolosaldea Garatzen S.A.-ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrietan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko tokiko garapen jasangarriko teknikariak kontratazio lana bideratzeko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2016ko abenduaren 16an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2016ko abenduaren 19ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Tolosaldea Garatzen S.A.ren artean, elkarlanean, Tolosaldeko udalerrietan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko tokiko



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

garapen jasangarriko teknikariak kontratatzeko lana bideratzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

LANKIDETZA-HITZARMENA, LIZARTZAKO UDALA ETA TOLOSALDEA GARATZENen ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN TOKIKO GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN SUSTAPENERAKO

Tolosan, 2016ko abenduaren ..an

BILDURIK

LEIRE GORDO CASTRO, Lizartzako alkatea, Lizartzako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Joxe Luis Urdangarin Goñi, Tolosaldea Garatzen S.A.ko gerentea, erakunde honen izenean eta hau ordezkatzuz.

Esku-hartzaileek, beren karguei dagozkien funtzioak betez, esku hartzen duten bezala, hitzarmen honetarako erabateko gaitasuna aitortzen dietela elkarri, eta ondorio horietarako:

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- Udal kudeaketa garapen jasangarriaren printzipioetara egokitzeko ekimenak, programak eta estrategiak aurrera eraman behar direla. Garapen iraunkorra, hain zuzen ere, hauxe da: beste gune geografiko batzuen edo etorkizuneko belaunaldien garatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe uneko tokiko beharrak asebetetzea.

Bigarrena.- Tolosaldea Garatzen, S.A.-k eskualdeko udalen arteko zerbitzu partekatuak sustatzen dituela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

Hirugarrena.- Eskualdeko udalerrri gehienak neurri txikikoak direla giza eta ekonomi baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak garatu eta behar bezala ezartzeko teknikariak modu partekatuan kontratatzea erabakitzen dela udalerrri hauetan ekimen horiek modu egokian ezartzen lagunduz.

Laugarrena.- Orain arte Tolosaldea Garatzen S.A.ren bitartez kontratatutako teknikari partekatuaren zerbitzua bat datorrela udalean identifikatutako beharrei eman



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

beharreko erantzunarekin eta, ondorioz, udalak zerbitzua kontratatzen jarraitu nahi duela.

Ondorioz, Lizartzako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek, lehenago adierazitakoa kontuan izanik, lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauek kontuan hartuta:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen helburua da Lizartzako Udala eta Tolosaldea Garatzen S.A.ren arteko harremana arautzea, Tolosaldeko udalerrietan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko tokiko garapen jasangarriko teknikariak kontratatzeko.

Bigarrena.- Hitzarmen hau sinatzean, Tolosaldea Garatzen S.A.k eta Lizartzako Udalak, konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Tolosaldea Garatzen S.A.k Lizartzako udalean garapen iraunkorreko estrategiaren jarraipenean modu partekatuan jardungo duen teknikaria hautatu eta kontratatuko du ondoren adierazten diren funtzioekin bat datorren profila kontuan izanik. Teknikari honen funtzioak honakoak izango dira:
 - Udalaren garapenerako beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta dinamizatu, betiere garapen iraunkorrean oinarrituta.
 - Bere gaiekin bat datozen dirulaguntzen eskaerak bideratu eta jarraipena egin.
 - Udalerriko Tokiko Agenda 21 sustatu eta informazioa zabaldu.
 - Ekintza planen jarraipena burutu eta errebisioetat arduratu.
 - Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, halakorik agintzen badiote
 - Eskualdeko koordinatzailearen esanetara egongo da, hark sustatutako lan ildoak eta ekintzak bultzatuz.
- Tolosaldea Garatzen S.A.k urteko gestio plana burutuko du bertan zehaztuko dituelarik hurrengo urterako aurreikusitako sarrerak eta gastuak. Kanpoko laguntzen bitartez osatu gabeko defizita, teknikariaren dedikazioaren arabera banatuko da udal erabiltzaileen artean, eta ondorioz udalei fakturatuko zaie.
- Lizartzako Udalarekin ondorengo baldintza hauek adostu dira honako hitzarmenaren bidez:
 - Dedikazioa: teknikari baten lanaldi osoaren % 15a (244 ordu urtean)



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- Iraupena: 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra
- Zenbatekoa: 6.938,40 euro + BEZ (urtean)

Hirugarrena.- Hitzarmen honen bitartez teknikarien dedikazioa bakarrik arautzen da.

Teknikarien lanetik erator daitezkeen proiektuek tratamendu berezia izango dute eta kasu bakoitzean aurreikusiko da nola kudeatu kostua eta kanpotik lor daitezkeen finantziazioa.

Laugarrena.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta **2017ko abenduaren 31** arte iraungo du.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek bertan behera utz dezakete, baldin eta hiru hilabete lehenago jakinarazten badiote beste alderdiari, betiere, gauzatzen ari diren lankidetzaren guztiak amaitu ostean.

Eta ados daudela egiaztatzeko, hitzarmen hau sinatuko dute bi aletan, goian aipatutako lekuan eta egunean;

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.- MOZIOAK

Ez da moziork aurkeztu.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko ..etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia